

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



ADITU PROGRAMA

Ikerketan zein irakaskuntzan
artez eta moldez jarduteko
hizkuntza-prestakuntzarako
programa

www.ehu.eus

UPV/EHUko Ikertzaileen eta Irakasleen Hizkuntza Gaitasuna Sustatzeko Plana

ADITU PROGRAMA

**Ikerketan zein irakaskuntzan artez
eta moldez jarduteko hizkuntza-
prestakuntzarako programa**

**Erabiltzaile Aditua
C2 maila**

**Hizkuntzen ikaskuntzarako,
irakaskuntzarako eta ebaluaziorako
Europako Erreferentzia
Markoaren arabera**

**Euskara Zerbitzua
Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren alorreko Errektoreordetza
UPV/EHU**

Zer da ADITU?

ADITU programaren bidez UPV/EHUko irakasle zein ikertzaileei hizkuntza-prestakuntza osagarria eskaini nahi zaie, haien burua presta dezaten jakintza-arlo espezializatuetakoz ere akademikoetan (irakaskuntzan zein ikerketan) taxuz eta egoki molda daitezen, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoan hiztun adituari aurreikusten zaion mailan (C2).

Izan ere, ADITU ikastaroa HABEren curriculumarekin dago lerratuta, eta C2 gaitasun-mailako egiaztatze-probetan parte hartzeko sarbidea ere eskaintzen du. Horrenbestez, C2 mailako egiaztapen ofiziala eskuratzeko aukera eskaintzen du.

Era berean, unibertsitateen RED-U sareak Irakasleen Garapen Akademikorako Markoaren (MDAD) bigarren mailako helburuekin ere bat egiten du¹. Horrela bada, unibertsitateko akreditazio-, ebaluazio- zein kontratazio-prozesuetan eskuarki aplikatzen diren protokoloekin bateragarri dira ADITU ikastaroaren bidez egiaztatzen diren merezimenduak.

Nori zuzentzen zaio ADITU?

UPV/EHUko ikertzaile- zein irakasle-lanetan diharduten kideei zuzendutako prestakuntza-ekintza da ADITU programa:

- Haien burua zeregin akademikoak aditasunez egiteko gaitu nahi duten doktoregaiak
- Karrera akademikoaren hastapenetan dauden irakasleak
- Haien hizkuntza-gaitasuna zorroztu nahi duten irakasle elebidunak
- Euskaraz lan egiten esperientzia luzea duten irakasle zein ikertzaileak

Betiere, baldintza hauek bete behar dira programan parte hartzeko: a) matrikula egiteko unean UPV/EHUko doktoregai, ikertzaile edo irakasle izatea; b) C1 mailako gaitasun sendoa egiaztatua izatea; eta c) C2 mailarako bidea egiteko interesa izatea.

¹ Ikus: <https://red-u.org/marco-de-desarrollo-academico-docente-mdad/>

Zein da ADITU programaren xedea?

Ahoz zein idatziz adituen mailako testu zaindu eta eraginkorrak ekoizteko beharrezko den gaitasun orokorra garatzea, betiere, irakaskuntza- zein ikerkuntza-lanaren testuinguruan norberak izan ditzakeen lehentasunezko premiei arreta berezia jarrita.

Zer gaitasun landuko dira programa honetan?

ADITU programan xedea C2 mailako gaitasuna erdiestea da. Hori horrela, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C2 mailan aurreikusten diren gaitasunak hartuko dira ardatz, alegia, unibertsitateko zeregin akademikoetan kontrol maila handiz jarduteko ezinbesteko direnak. Hona hemen funtsezkoenak:

- Eremu pertsonal zein sozialeko orotariko dokumentuak, artikulak, ahozko azalpenak, iruzkinak eta elkarrizketak ulertzea eta ulertutakoaren berri ematea.
- Dokumentu eta adierazpen profesionalak ulertzea eta egitea, oinarritzakoak (apunteak, ikasleentzako gidak...) zein jasoak (komunikazioak, ponentziak...).
- Gai akademikoen inguruko zehaztasunak ulertzea eta eskaintzea, eta adituen zein aditu ez diren galderari erantzutea orotariko esparruetan:: eskolan, komunikabideetan, biltzarretan...
- Mahai-inguruen eta debateen testuinguruan, adituaren ikuspegia eskaintzea eta hartutako erabakien edo ateratako ondorioen laburpena egitea.
- Beste hizkuntzetan egindako ahozko adierazpenen eta testuen edukiaren berri ematea euskaraz, ahoz zein idatziz, besteak beste, bat-bateko egoeretan.

Horrekin batera, hizkera zaindu eta jasoaren eskakizunak ere hartuko dira jomugan: nola komunikatu modu egoki, zehatz eta argian, arlo akademiko zein profesionalean.

Nolako ikaskuntza-emaitez bilatzen dira?

Hona hemen, ADITU programaren bidez erdietsi nahi den soslaia, HABEren curriculumean C2 mailarako aurreikusita dagoenaren arabera zehaztua:

Adituaren lerrunaren xedea honako hau da: eremu profesional, publiko zein pertsonalean era guztietako informazioa euskaraz trukatzeko gai izatea era landu eta jantzian, ahoz zein idatziz, gaia, solaskidearen jarrera edota euren arteko harreman-maila zeinahi delarik, hizkuntza-adierazleak estrategikoki erabiliz eta hizkeraren maila denotatiboa eta konnotatiboa bereiziz. Hain zuzen ere, erabiltzaile aditua gai da norbere espezialitateko nahiz gai orokorretako testuak ulertzeko, eta egoerari egokituz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoizteko. Gai da, halaber, jartotasun handiz eta zehaztasunez, gauzak adierazteko, eta baita konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizteko ere.

Horren bidez, Unibertsitateko Irakasleen Garapen Akademikoaren Markoan aurreikusten den bigarren mailako profilarekin lerritzen diren zenbait gaitasun ere bermatu nahi dira. Hona hemen, soslai horren deskribapena, UPV/EHUko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako EHP-2020 Planean jasotakoaren arabera.

| I Atala: Curriculum | II. Atala: Prozesuak | III. Atala: Oinarriak |
|---|---|--|
| <p>Irakasleak orientabide egokiak eskainiko dizkie ikasleei hizkuntzaren erabilerari dagokionez, haien diskurtso-gaitasuna ikasketa-planean aurreikusten den mailan garatu ahal izan dezaten.</p> | <p>Dokumentu akademiko konplexuak ekoitziko ditu, eta ikerketalanean txosten argi eta zehatzak. Ahozko azalpenetan, ñabardurak ere eraginkortasunez helaraziko ditu.</p> <p>Ikasleekiko harremanetan, eraginkorra izango da ikasleen jarduna gidatzen: talde-dinamikak, gatazkak...</p> | <p>Ondo menderatu behar ditu hizkera akademiko jasoaren konbentzioak.</p> <p>Euskarazko terminologiaren ezagutza zabala izango du.</p> |

Nola egituratzen da programa?

ADITU programak egitura modularra izango du. Modulu bakoitzean zeregin komunikatibo bat hartuko da ardatz, eta horren inguruan garatuko dira ikaskuntza-ataza guztiak. Ataza horiek trebetasun guztiak hartuko dituzte barne: entzutezko ulermena, irakurriaren ulermena, elkarreragina, bitartekotza, ahozko ekoizpena eta idatziaren ekoizpena. Zenbait atazak parte-hartzaileen arloko gai espezializatuen inguruan lan egiteko aukera eskainiko dute. Guztira sei modulu aurreikusi dira. Modulu bakoitzak 5-8 asteko iraupena izango du.

Lehen hiruhilekoan landuko diren moduluak orokorragoak eta luzeagoak izango dira, eta, batik bat komunikazio-ekintza konplexuetarako beharrezkoak diren oinarriak lehenbailehen eskuratzea izango dute jomugan. Ondoren, modulu labur eta dinamikoagoak proposatuko dira, helburu akademiko espezifikoagoi begirakoak. Ikastaroaren azken zatian, berriz, C2ko azterketetan agertu ohi diren egoeren simulazioak landuko dira; alegia, azterketa-probarako berariazko prestakuntza egingo da azken asteetan.

Horrez gain, bi modulu berezi izango dira; zeharkakoak deituko diegu, eta helburu espezifikoak izango dituzte: laburpen idatziak eta hizkuntza-baliabideen gaineko kontrola lantzekoak. Lehen, HABEren C2ko azterketako ulermen-proben eskakizunei oso lotua egongo da, eta, azterketa horren egutegia gorabehera, martxo bitartean garatuko da, bereziki; bigarrena, berriz, ikasleen behar espezifikoaren arabera joango da itxuratzen, eta ikastaroaren hasiera aldera pisu gehiago izatea aurreikusten da.

Nolako metodologia erabiliko da?

ADITU programan ikaskuntzarako metodologia parte-hartzaile, kooperatibo eta aktiboa erabiliko da, testu errealean lanketan, ikasleen arteko interakzioan eta haien testu-ekoizpenetan oinarritutakoa. Alabaina, dinamika ezberdinak erabiliko dira aurrez aurreko taldeko saioetan (40 ordu inguru) eta ingurune birtualean modu autonomoan garatu beharreko banako jardueretan (80 ordu inguru).

Aurrez aurreko saioak, bereziki, elkarreragina eta bat-batekotasuna eskatzen duten jarduerak egiteko erabiliko dira; baita taldeko feedbacka eskaintzeko ere. Bakarkako ikas-prozesurako, aldiz, indibidualizazio handiagoa eskatzen duten jarduerak aurreikusten dira; modu autonomoan egitekoak direnak, alegia: gidatutako testu-azterketak, ulermen-atazak, testu idatziaren ekoizpenak...

Irakasleek dinamizatzaile eta gidari-lana egingo dute; era berean, parte-hartzaileen jarraipenaz arduratuko dira. Arreta berezia jarriko zaie ikasgelan proposatutako jarduerari aurre egitean parte-hartzaileek agertzen dituzten zalantzei eta zailtasunei.

Nolako ebaluazio-sistema erabiliko da?

Ebaluazioa, etengabea eta pertsonalizatua izango da. Ikastaroaren hasieran eta amaieran diagnosi-probak egingo dira, abiapuntuko egoera zehazteko, eta parte-hartzaile bakoitzaren aurrerabidea ikusgarri egiteko. Prozesuan zehar, bestalde, etengabeko feedbacka eskainiko da ikasgelan bertan; taldekoa zein banakoa.

Horrez gain, modulu bakoitzaren amaieran parte hartzaileek bi zeregin labur egin beharko dituzte. Zeregin horiei buruzko feedback pertsonalizatua jasoko dute, betiere, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak hitzun adituari aurreikusten dion mailaren arabera.

C2 egiaztatgiri ofiziala eskuratzeko HABEk ezarritako protokoloa ere hartuko da kontuan. Izan ere, deialdi itxiko probetara aurkeztu ahal izateko, aurrez zenbait ebidentzia eskaintzea eskatzen baitu HABEren araudiak.

Nola egiaztatuko dute parte-hartzaileek helburuak erdietsi izana?

Parte-hartzaileek «portfolio» bat osatuko dute moduluz modulu. Portfolio horretan haien gaitasunen ebidentziak jasoko dituzte parte-hartzaileek modulu bakoitzaren amaieran.

Ikastaroko irakasleek balioetsiko dituzte ebidentzia horiek eta portfolioaren ebaluazio-agirian jasoko dute haien irizpena (GAI/EZ GAI). Agiri horretan, bi ataletan bereiziko dira ahozko komunikazioari dagozkion lorpenak eta komunikazio idatziari dagozkionak.

Programa arrakastaz gainditutzat jotzeko, eskatutako ebidentzien %75ek bete beharko dituzte mailari dagozkion eskakizunak. Hauek dira portfoliorako aurreikusten diren egitekoak:

| MODULUA | KOMUNIKAZIO IDATZIA | AHOZKO KOMUNIKAZIOA |
|---|--|---|
| Arian-arian xehatzen da burdina | Artikulu bat <i>Berriarako</i> , xede izanik gaiari buruzko informazioa ematea eta gaiarekiko jarrera bat sorraraztea. | Podcast bat (iruzkina) blog baterako, xede izanik gaiari buruzko informazioa ematea eta gaiarekiko jarrera bat sorraraztea. |
| Nori berea... I | Ikasgai osagarri bat Hezkuntza Sailaren <i>www.hiru.com Etengabeko Ikaskuntza</i> webgunean argitaratzeko, xede izanik gai horri buruzko informazio esanguratsua, argia, zehatza eta objektiboa ematea, batxilergoko ikasleen jakin-minari erantzungo diona. | Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak argitaratzen duen <i>ZIENTZIALARI</i> argitalpen digitalerako bideoa bat, espezialitateko kontzepturen bat zehatz azaltzeko. Azalpenak edozein entzulek ulertzeko modukoa izan behar du, gaiari buruzko ezagutzarik ez izan arren. |
| Nori berea... II | Arloko aldizkari espezializatu batean argitaratzeko iritzi-artikulua, gaiari buruzko informazioa eman eta irakurleek iritzia osa dezaten. Adibidez, informatikari eskainitako aldizkari batean berrikuntza baten berri emateko eta berrikuntza horrekiko iritzia argudiatzeko. | Aditu gisa, arloko gaiaren inguruko iritzi kritikoa azaldu irratikolaboraziorako, xedea gaiari buruzko hausnarketa bultzatzea izanik. |
| Asmoz eta jakitez | Jardunaldi bateko antolatzaileei zuzendutako gutuna, xede izanik jardunaldi horretan norberaren espezialitateko gai bat sartzeko eskaera egitea. Argudiatu eskaera hori. | Komunikazioa: lan-esparruan edo esparru akademikoan egindako lan edo ikastaro bateko esperientzia ikuspegi tekniko batetik kontatu, besteak jakinaren gainean jartzeko asmoz. |
| Sutan jarrita probatzen da lapikoa | Modulu honetan landuko diren komunikazio-ekintzak beharren eta denboraren arabera aukeratuko dira, bai kopurua, bai jarduera-mota. Ekintzak orain arte C2ko azterketan jarri izan direnen artetik hautatuko dira. | |
| Bitartekaritza lanetan (Denbora izanez gero, egingo da) | Aldizkari espezializatu batean euskara ez den beste hizkuntza batean argitaratutako artikulua berri eman euskaraz. | Topaketa, jardunaldi edo biltzar batean euskara ez den beste hizkuntza batean egindako hitzaldiaren laburpena jasoko duen podcasta grabatzea, web-orrian eskaintzeko. |
| ZEHARKAKO MODULUAK | | |
| Hitz gutxi eta haiek onak (laburpen idatziak lantzeko modulua) | Taldearen zein ikasle bakoitzaren beharren arabera egokituko da modulu honen intentsitatea eta iraupena. Gutxienez, ahozko zein idatzizko bina testuren laburpenak bilduko dira portfolioan: diskurtso-mota edota testuinguru desberdinetako testuenak. | |
| Hizkuntza-baliabideak | Irakaslearekin adostutako jarduerak | |

Zein izango dira programaren arduradunak?

Programa eskaini eta aurrera eramateko arduraduna UPV/EHUk lehiaketa publiko bidez hautatutako euskaltegi homologatua izango da. Euskaltegia bera izango da programaren kudeaketa administratiboaz arduratuko dena: ikasleak HABEn alta ematea, asistentzia erregistratzea, HABEren ebaluazio-protokoloa aplikatzea, eta abar.

Programaren kudeaketa akademiko orokorra, berriz, Euskara Zerbitzuko Irakasleen eta Ikertzaileen Prestakuntzarako Arduradunak egingo du, euskaltegiko arduradunekin eta programan eskainiko duten irakasleekin batera. Euskara Zerbitzua izango da UPV/EHUk emango dituen egiaztagiriak kudeatu eta balioesteko ardura.

UPV/EHUren egiaztagiria unibertsitateko deialdietan balioetsi ahal izango da Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako EHP-2020 Planak zehaztutako irizpideen arabera. Alabaina, ziurtagiri horrek ez du C2 mailaren egiaztagiri ofiziala ordeztuko. Egiaztagiri ofizial eskuratzeko HABEren zein IVAPen deialdietara jo beharko da ezinbestean, dela deialdi itxian, dela deialdi irekian.

Nolako finantzaketa du programa honek?

Ikastaroa HABEk homologatutako euskaltegi baten bidez eskaintzen da. Beraz, HABEk ezarritako baldintzak beteko ditu ikastaroak. Parte-hartzaileei matrikularen zenbatekoa, berriz, Euskara Zerbitzuak hartzen du bere gain. Horrenbestez, parte-hartzaileek ezin izango dute bestelako diru-laguntzarik eskuratu ez erakunde publikoetatik, eta ezta erakunde pribatuen aldetik ere ikastaro honetan parte hartzeagatik.

Taldeak, izen-ematea eta onarpen-baldintzak

ADITU programa UPV/EHUren hiru campusetan eskainiko da: Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. Bizkaiko taldearen kasuan, aurrez aurreko saioak Leioan izatea aurreikusten da. Dena den, parte-hartzaileen atxikitze-ikastegia kontuan hartuta, erabaki liteke saio batzuk Leioan eta beste batzuk Bilbon izatea; baita taldea Bilbon ateratzea ere, hala egokiago bada.

Aurrematrikulazio-epea uztailean zabalduko da. Epealdi honetan lehentasunezkoztat jotzen diren lagunek egingo dute izen-ematea: a) aurreko ikasturtean ZUZEN+ programan parte hartutakoek; b) doktoretza-eskolaren bidez matrikulatutako ikertzaileek; eta c) fakultateetako dekanotzen bidez bideratutako irakasleek. Irailean izena emateko deialdia zabalduko da.

Deialdi irekian irakasle hauek izango dute lehentasuna, hurrenez hurren: a) Euskaraz irakasten 8 urte baino gehiago akreditatzen dutenak; b) C1 mailako egiaztagiria duten Irakasle Atxikiak eta Irakasle Laguntzaileak; c) Doktore-tesia euskaraz egiten ari diren ikertzaileak; d) C1 mailako egiaztagiria duten Bitarteko Irakasleak; e) C1 mailako egiaztagiria duten Irakasle Lagunak.

Guztira 45 plaza eskainiko dira (15 plaza campus bakoitzean). Dena den, eskariak plaza-kopurua gaindituko balu, eta EHP-2020 Planari atxikitako beste programetan plazak hutsik geratzekotan, aztertuko da ADITU programan plaza gehiago eskaintzeko aukera.

Edonola ere, gogoan izatekoa da ADITU programa C2 egiaztagiria lortzera dagoela bideratua. Espero izatekoa da izena ematen dutenek helburu horrekin bat egitea.

Zein dira parte-hartzaileen konpromisoak?

Programa honetan erakunde publikoek ahalegin ekonomiko esangarria egiten dute. Trukean, programa ondo aprobetxatzeko konpromisoa hartzea eskatzen zaie parte-hartzaileei.

- **Taldeko saioak.** Programa honen herena, aurrez aurreko taldeko saion bidez garatzen da (40 ordu inguru). Programaren helburuak erdiesteko zein ikastaroaren funtzionamendu orokorrerako, funtsezkoa da eskola-saioetara erregularitasunez joatea. Programa akreditatzeko, %75eko asistentzia eskatzen da.
- **Lan indibiduala.** Programa honen bi heren, modu tutorizatuan egin beharreko jarduerak osatzen dute (80 dedikazio-ordu inguru). Jardueretako batzuk gutiz pertsonalizatuak izango dira. Programa akreditatzeko, jardueren % 75 egitea eskatuko da. Hala ere, lan-karga parte-hartzaile bakoitzaren premien arabera izango da, eta berarekin adostutakoa.
- **Puntueltasuna eta egutegiaren betetze-maila.** Eskola-saioak eraginkorrak izan daitezten, oso garrantzitsua da garaiz hasi, eta, ahal den heinean, parte-hartzaile guztiak edo gehienak saio osoan egotea bertan. Era berean, kontuan izan behar da lanak zehaztutako epean ez emateak lan erantsia dakarkiola programako irakasleei. Batzuetan ezinezko izango da garaiz heltzea, edo lehenago joan beharra gertatuko da. Lanak ere ezin izango dira beti zehaztutako epean egin. Alabaina, halakoek salbuespen izan beharko lukete, eta ez, ohiko egin.
- **Inplikazioa.** C1 mailatik C2rako ibilbidea ez da beti berdina. Pertsona guztiok ezagutza, gaitasun, erritmo eta motibazio ezberdinak ditugu. Horrexegatik, hain zuzen ere, oso garrantzitsua modu aktiboan inplikatzeko prozesuan: irakasle/tutoreei gure beharren berri ematea, zalantzak eta kezkek agertzea, helburuak eta epeak betetzeko ahalegin berariazkoa egitea, aurrerapenekin eta lorpenekin poztea...

Nolako aitortza du ADITU programak?

UPV/EHUren Euskara Zerbitzuak Irakasleen Garapen Akademikoaren Markoaren arabera bigarren mailako ziurtagiria emango die programaren eskakizunak betetzen dituzten parte hartzaileei. Ziurtagiri honek ezagutza izango du UPV//EHUren deialdietan.

Ziurtagiriak bi atal izango ditu: ahozko komunikazioari dagokion atala eta komunikazio idatziari dagokiona. Parte-hartzaileek bi atalak akreditatu ahal izango dituzte, edota horietako bat bakarrik.

Horrez gain, HABEk ezarritako baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileek aukera izango dute C2 mailako egiaztatze-deialdietako proba itxietan parte hartzeko, eta, horren bidez, C2 mailako komunikagaitasunaren egiaztagiria eskuratzeko.

Zer baldintza bete behar dira ADITU aitortza eskuratzeko?

- **Hasierako diagnosis:** ikasturte hasierako proban parte hartzea
- **Parte-hartzea:** % 75etik gorako asistentzia
- **Ahalegina:** Portfolioko zereginen % 80 garaiz eta moduan egin izana.
- **Emaitzak:** Ebaluazio positiboa duten 4 ebidentzia, gutxienez, egiaztatu nahi den ataletako bakoitzean (ahozkoa/idatzia)
- **Amaierako proba:** Ebaluazio positiboa ikastaroaren amaierako proban

Ikastaroaren diseinua

ADITU programak diseinu modular malgua du, aukera ematen duena programazioa eta edukiak taldearen premien eta lehentasunen arabera egokitzeko.

- Ikastaroaren muina oinarritzko 5 moduluk osatzen dute.
- Horiez gain, zeharkako bi modulu ere aurreikusi dira. Horietako bat, ikasle bakoitzaren premiei erantzutekoa, eta bestea, berriz, azterketa probari begirakoa.

Jarraian eskaintzen da modulu bakoitzaren deskribapen laburra.

1. modulua

Arian-arian xehatzen da burdina

Azalpen laburra

Modulu hau nahiko orokorra izango da. Izan ere, helburu nagusia hau da: hiztun adituari aurreikusten zaion gaitasunera iristeko ibilbidea erakustea. Nagusiki, goi-mailako testuen prestakuntzarekin zerikusia duten hiru planoren garrantziaz jabetzea bilatzen da: (i) testuinguruko aldagaiak zeintzuk diren atzematea, duten garrantzia ulertzea eta aintzat hartzen hastea; (ii) testuak generoen eskakizunen arabera planifikatu eta egituratu beharraz jabetzea eta irizpide jakinen arabera halaxe egitea; (iii) diskurtso-mota desberdinak egonik, bat edo beste (edo haien arteko konbinazioak) aukeratzeak dituen ondorioez jabetzen hastea. Puntuazio-marken erabilera estrategikoaren oinarriak ere jartzen hasiko gara.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Asmoa esplizituki agertzen ez den testuetan, haria antzemateko gaitasuna testuinguruari, egiturari eta diskurtsoari erreparatuz eta inferentziak eginez.
- Aldizkari orokorretan argitaratutako iritzi-artikuluen testuinguruan, gaiari buruzko informazioa emateko gaitasuna, betiere helburua izanik, irakurleek osa dezaten gai horri buruz aurrez duten ikuspegia.

Ahozko komunikazioa

- Teknologiari, literaturari, zientziari eta abarri buruz adituek komunikabideetan egindako gogoetak eta iruzkinak zehaztasunez ulertzeko gaitasuna.
- Nork bere arloko gaien inguruan iritzi kritikoa azaltzeko gaitasuna, betiere helburua izanik, gaiari buruzko hausnarketa eragitea entzuleengan.

Langaiak

- Komunikazioaren testuinguruko baldintzak.
- Testuinguru komunikatiboa eta testu-generoak.
- Diskurtso mota nagusiak: azalpena, kontaketa eta preskripzioa.
- Testu zainduak egituratzeko irizpideak.
- Iritzi-testuen egitura.

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Berriarako artikulua bat, xede izanik gaiari buruzko informazioa ematea eta gaiarekiko jarrera zehatza sorraztea.

Ahozko komunikazioa: Blog baterako podcast bat (iruzkina), xede izanik gaiari buruzko informazioa ematea eta gaiarekiko jarrera zehatza sorraztea.

2. modulua

Nori berea... I: azalpenak eta argibideak

Azalpen laburra

Modulu honetan, nork bere espezialitatearen berri ematea izango da egiteko nagusia. Ildo horretatik, azalpen-testuen inguruan arituko gara; azalpena oinarrizko diskurtso izango duten generoen inguruan, alegia: testuinguru posibleak, egituratzeko irizpide nagusiak, diskurtso-mota honen ezaugarri bereizgarriak... Hortaz, alde batetik, aurreko moduluan orokorkiago landu diren edukiak azalpenean ardaztuta berrikusiko dira; eta, bestetik, aukera izango da gaitasun testualaren beste alderdi batzuei arreta jartzen hasteko, nagusiki, interaktibotasunari, konexioari eta izen-kohesioari. Modulu honek aukera eskainiko die parte-hartzaileei haien espezialitateari buruz hitz egiteko ezinbesteko dituzten elementu lexikoen zerrenda osatzen hasteko. Puntuazio-markek eta puntuazio-estrategiek azalpenak egiteko eskaintzen dituzten aukerei erreparatuko zaie.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Aldizkari edo foro espezializatuetan argitaratutako testu konplexuen kasuan, nork bere arlokoak zehaztasunez ulertu eta interpretatzeko gaitasuna, eta, bere arlokoak ez diren kasuan, hari nagusiaz jabetzeko gaitasuna.
- Esparru akademikoan ikasleei zuzendutako azalpen-testu konplexuak argi idazteko gaitasuna.

Ahozko komunikazioa

- Adituen hitzaldiak, aurkezpenak edo azalpenak ondo ulertzeko eta kasuan kasuko ondorioak ateratzeko gaitasuna, baita hizlariak argudio konplexuak garatzen dituenetan eta terminologia espezializatua erabiltzen duenean ere.
- Azalpen espezializatuen kasuan, entzuleentzat konplexuak izan daitezkeen ideiei buruzko argibideak ematea deskribapenak, birformulazioak zein adibideak erabiliz, betiere, hartzaileek mezua ulertzeko izan ditzaketen balizko zailtasunak aurreikusita.

Langaiak

- Gai konplexuen inguruko zabalkunde-artikuluak.
- Sintesiak: osagaiak eta estrategiak.
- Aurrez aurreko ahazko aurkezpena: ikasleekin komunikatzeko estrategiak.
- Zabalkunde-podcast: publiko zabalerako komunikatzeko estrategiak.

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Hezkuntza Sailaren www.hiru.com *Etengabeko Ikaskuntza* webgunerako informazio-testu bat idatzi, xede izanik gai horri buruzko informazio objektibo esanguratsua, modu argi eta zehatzean ematea, batxilergoko ikasleen mailaren eta premien arabera.

Ahozko komunikazioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak argitaratzen duen *ZIENTZIALARI* argitalpen digitalerako bideoa bat grabatu, espezialitateko kontzepturen bat orotariko entzuleek ulertzeko moduan azalduta.

3. modulua

Nori berea... II: argudioak eta arrazoibideak

Azalpen laburra. Modulu honetan, nor bere espezialitateko gai buruzko arrazoibideak eta argudioak garatzeko baliabideak landuko dira, bereziki, balioespenak egitekoak. Oraingoan, beraz, argudio-testuetara etorriko gara, eta aurreko moduluan egindako bidetik, alde batetik, lehen moduluan orokorkiago landu diren edukiak iritzi espezializatua eskatzen duten testuen inguruan ardaztuta berrikusiko ditugu (testuingurua, egitura, sekuentzia diskurtsiboak); eta, bestetik, aurrera egingo dugu gaitasun testualaren beste alderdi batzuei arreta jarrita. Oraingoan, ahots enuntziatzaileei eta modalizazioari jarriko diegu arreta, bereziki. Horrekin batera, parte-hartzaileek beren arloarekin lotutako lexikoa zabaltzen jarraitzeko aukera izango dute. Puntuazioa testua aberasteko bide gisa landuko da.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Esparru akademiko nahiz profesionaleko testuetan egileen iritziak eta jarrerak atzemateko gaitasuna, baita horren asmoaz eta aldarkez jabetzekoa ere, nagusiki gaia norberaren arlokoa denean.
- Puri-purian dauden gai buruzko irratiko saio baterako iruzkin kritikoa idazteko gaitasuna, nor bere iritzia edo ikuspuntua azalduta, betiere, idatzitako testua ozen irakurria izango dela kontuan hartuta.

Ahozko komunikazioa

- Adituek hitzaldien testuinguruan emandako iritziak zehaztasunez ulertzeko eta kritikoki interpretatzeko gaitasuna.
- Espezialitateko gai bati buruzko mahai-inguruetan azalpenak zehatz emateko eta iritziak ongi defendatzeko gaitasuna, bai bakarriketan, bai elkarreraginean.

Langaiak

- Sintesiak: ikuspegi alderatzea.
- Adituen iritzi-artikuluak eta ahozko iruzkinak.
- Mahai-inguruak eta debateak.

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Arloko aldizkari baterako iritzi-artikulu idatzi, irakurleek gaiari buruz duten iritzia osatzeko behar duten informazioa emateko. Adibidez, informatikari eskaintako aldizkari batean berrikuntza baten berri emateko eta berrikuntza horrekiko iritzia argudiatzeko.

Ahozko komunikazioa: Irratiko saio batean kolaboratzaile jarduten duen aditu gisa, arloko gaiaren inguruko iritzi kritikoa ematea, tertuliakideen artean zein entzuleengan gaiari buruzko hausnarketa bultzatzeko xedea jomugan.

4. modulua

Asmoz eta jakitez

Azalpen laburra

Modulu honetan, aurrekoetan garatzen joan garen gaitasun testuala zukutzen hasiko gara, baina, oraingoan, lan-esparruan edo akademikoan aurre egin behar izaten diren komunikazio-eragiketa konplexuak egitera bideratuko da arreta nagusia. Azken egitekoak gogoan, modulu honek bi helburu espezifiko izango ditu. Batetik, gutunen generoari jarriko zaio arreta: berezko ezaugarriak kontuan hartzea eskatzeaz gain, diskurtso-mota guztiak bateratzeko maneiatu behar izateko egokiera ona eskaintzen du eta. Bestetik, kontaketa-sekuentzietan zaindu beharrekoak landuko ditugu, eta leku berezi bat egingo zaio aditz-kohesioari. Modulu honetan, inoiz baino gehiago, parte-hartzaileek aditu gisa eta adituentzat aritu beharko dute: azalpen zehatzak eta zorrotzak eskaini beharko dituzte, ondo arrazoitutako iritziak edota proposamenak eman beharko dituzte, lexiko espezializatua eta jasoa tarteko.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Lan-esparruko nahiz esparru akademikoko abstrakzio-maila handiko testuak ulertzeko gaitasuna, bereziki, nork bere arloko dituenak.
- Erakundeekiko harremanetan, nork bere azterlana defendatzeko gaitasuna, proiektu jakin baterako izan dezakeen balioa frogatuta eta argudiatuta.

Ahozko komunikazioa

- Lan-bileretako eztabaiden testuinguruan, gai teknikoei buruzko iritziak eta argudioak ulertzeko gaitasuna.
- Lan-esparruan, nork bere arloko gaiari buruz jendaurreko azalpen tekniko eraginkorrak egiteko gaitasuna.

Edukiak:

- Sintesiak: diskurtso-motak
- Gutunak eta bestelako komunikazio formalak
- Komunikazio akademikoak
- Azalpen teknikoak
- Adituaren ikuspuntua eskatzen duten artikulua eta erreportajeak

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Jardunaldi espezializatuen antolatzaileei gutuna idatzi, jardunaldietan gai zehatz bati tarte egin dakiola eskatzeko.

Ahozko komunikazioa: Lan-esparruan edo esparru akademikoan garatutako ikastaroetan edo egindako berrikuntza- zein ikerketa-proiektuetan izandako esperientzia ikuspegi teknikitik kontatu, alderdi azpimarragarrienak nabarmenduz eta, behar den heinean, zailtasunen eta arazozen berri ere emanez.

5. modulua

Sutan jarrita probatzen da lapikoa

Azalpen laburra

Modulu honetan landuko diren komunikazio-ekintzak beharren eta denboraren arabera aukeratuko dira, bai kopuruaren aldetik eta baita nolakotasunaren aldetik ere. Modulu honetan landuko diren ekintza horiek C2ko azterketan jarri izan direnen artetik hautatuko dira. Nolakoa den egoera, halako gaitasunak baliatu beharko dira. Hori horrela, modulu honen helburua da parte-hartzaileek haien gaitasunak erabiltzen trebatzea azterketa egoeren eskakizunei eraginkortasunez erantzuteko. Arreta berezia jarriko zaie mezuei esan-indarra emateko baliagarriak izan daitezkeen estrategiei eta baliabideei.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Hainbat generotako literatur testuak ulertzeko gaitasuna eta bertan erabilitako bitarteko estilistikoak atzematekoa (hitz-jokoak, metaforak, konnotazioak...).
- Gorazarre-artikuluak idazteko gaitasuna, dela pertsona bat eta haren ekarpenak nabarmentzeko, dela ekitaldi edo proiektu baten emaitza onak nabarmentzeko.

Ahozko komunikazioa

- Filmak, antzezlanak, telebista-saioak eta irratiko saioak ulertzeko gaitasun, eta, bereziki, umorea, ironia, ñabardurak eta esanahi inplizituak antzematekoa.
- Hitzaldi baten atarian, hizlariaren ibilbidea adierazi eta haren parte hartzea justifikatzeko gaitasuna, betiere, hizlariaren merezimenduak nabarmenduta.

Langaiak:

- Testu adierazkorrak

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Komunikazio idatzia: Idatzi C2 mailako irakaslearen omenezko artikulua, euskaltegiko webgunean argitaratzeko. Horretarako, kontuan hartu harekin izan zenituzten harremanak eta bizipenak. Azpimarratu, batez ere, C2 lortzeko ibilbidean hark emandako laguntza.

Zeharkako moduluak-1**Hitz gutxi eta haiek onak: sintesi eraginkorrek egiteko estrategiak eta trebetasuna****Azalpen laburra**

Zeharkako modulu honen helburua da orotariko sintesiak modu eraginkorrean egiten trebatzea. Izan ere, zeregin akademikoetarako funtsezko gaitasuna da analisi- eta sintesi-gaitasunarena. Era berean, ideiak argi eta zehatz adierazten trebatzeko jarduera ezin-hobea da sintesiarena. Alabaina, sintesia egitearena eragiketa konplexua da, gaitasun ugari baliatzea eskatzen duena: ulertzekoa, informazio funtsezkoena identifikatzekoa, inferentziak egitekoa, ideiak ardi adierazi eta lotzekoa... Hortaz, lanketa espezifikoa eskatzen du normalean. Bestalde, sintesi-ariketa bat eskatu ohi da eskuarki C2ko ulermen-probetan. Modulu honen intentsitatea eta iraupena taldearen zein ikasle bakoitzaren beharren arabera egokituko da.

GAITASUNAK**Komunikazio idatzia**

- Aldizkari edo foro espezializatueta nork bere arloko testu konplexuak zehatz-mehatz ulertzeko gaitasuna, baita bere arlokoak ez direnetan hari nagusiaz jabetzekoa ere.
- Esparru profesional zein akademikoan, gai tekniko ezagun bati buruzko testu luzeak laburtzeko gaitasuna (albistea, erreportajeak, artikulua...), betiere ikaskideak zein lankideak funtsezko ideien inguruan jakinaren gainean jartzea jomugan.

Ahozko komunikazioa

- Adituen hitzaldiak, aurkezpenak edo azalpenak ondo ulertzeko gaitasuna, eta kasuan kasuko ondorioak ateratzekoa, baita ere argudio konplexuak eta ideia abstraktuak garatzen dituenen eta bere arloko terminologia espezializatua erabiltzen duenean.
- Hitzaldi baten ostean, hitzaldiaren edukia interesa izan dezaketen pertsonen ahoz laburtzeko gaitasuna eta baita ere solaskideen zalantzei erantzutekoa.

Langaiak

- Era guztietako ahozko zein idatzizko testuak.

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Idatziaren ulermena: Irakurritakoa laburtu, informazio- zein komunikazio- osagai nagusiak adierazita: zer esaten duen nork, zertarako, norentzat... (50-70 hitzetan).

Ahozkoaren ulermena: Entzundakoa laburtu, informazio- zein komunikazio- osagai nagusiak adierazita: zer esaten duen nork, zertarako, norentzat (50-70 hitzetan).

Zeharkako moduluak-2

Komunikazio akademiko eta profesionalerako hizkuntza-baliabideak

Azalpen laburra

Modulu honetan erabiltzaile aitua ondo menderatu beharreko hizkuntza-baliabideei eskainiko zaie berariazko arreta: baliabide diskurtsiboei, baliabide gramatikalei eta baliabide lexikoei. Dimentsio ezberdinak hartuko dira jomugan: eraginkortasun komunikatiboarena, zehaztasun semantikoarena, zuzentasun gramatikalarena, eta abar. Modulu hau zeharkakoa izango da; hau da, ikastaro osoan zehar garatuz joango da. Hori horrela, ez da modulu itxia; alegia, arian-arian sortzen diren premien arabera egokituko da. Horretarako bi irizpide hartuko dira kontuan: a) moduluz modulu ardatz bezala hartzen diren eginkizun komunikatiboen eskakizunak; b) parte-hartzaileek, talde bezala zein indibidualki, agertzen dituzten premiak. Modulua ahalik eta modurik malgu eta pertsonalizatuenean garatzeko modua eta iturriak eskainiko dira.

GAITASUNAK

Komunikazio idatzia

- Oro har, zuzentasun gramatikal eta ortografiko handiko testuak ekoiztea.
- Hizkuntza-baliabideen oinarritzko erreperitorioa ziurtasunez erabiltzea.
- Zuzentzaile automatikoak sistematikoki baina zehaztasunez erabiltzea.
- Hizkuntza-zalantzak modu autonomoan ebatzea, behar denean, interneteko kontsulta-tresnak erabilita.

Ahozko komunikazioa

- Oro har, ziur, lasai eta natural jardutea, norberaren alorreko gai ezagunei buruzko norabide bakarreko diskurtsoetan zein elkarreraginean.
- Ahotsoa modu kontrolatuan erabiltzea, bolumen, erritmo eta doinua erabiliak erabilita.
- Hizkera estandarrean eroso jardutea, diskurtso akademiko jaso eta zainduak dituzten eskakizunak gogoan hartuta.

Langaiak

- **Zuzentasun gramatikal eta ortografikoa:** arauak eta gomendioak
- **Zehaztasun lexikoa:** erregistro zainduan kontuan hartu beharreko irizpideak
- **Testueltasuna:** Testu egoki eta eraginkorrak egiteko oinarritzko baliabideak
- **Terminologia:** Erabilera orokorreko terminologia eta terminoak sortzeko lexiko-baliabideak
- **Baliabide tekno-linguistikoak:** zuzentzaile automatikoak, tresna-barrak, APPak...

Ikaskuntza-lorpenen ebidentziak: azken egitekoak

Irakaslearekin hitzartutako jarduerak.

errian ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea